

BALEIKE

ZENBAKI HONEKIN BATERA
+ GUKA ALDIZKARIA



INDAMENDI

MENDE ERDI
TONTORREZ TONTOR



ENDAÑETak
ez du saldu
bakarrik egiten,
arreta ere
ematen du

www.endañetazumaia.com

Erribera, 8 · 943-86 16 94 · 943-86 21 47

Tien21



egutera

ZUMAIKO ENERGIA KOOPERATIBA

**Egotetik
egitera goaz.**

Zumaian bertan
eguzki energia
sortuko dugu.

Eman izena
orain, eta
bazkide egiteko
lehentasuna
izango duzu



labur.eus/egutera
Eman izena inolako
konpromisorik gabe



Zumaiako
Udala



ZUMAIA
BIZITZEKO
DA



GERTU
ZUMAIAKO BIZITZEKO DA BIZITZEKO ERKATEA





BALEIKE 325

2022-AZAROA

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:
ARNAITZ RUBIO APREA



Aurkibidea

- | | | | |
|----|---|----|--|
| 4 | Hitz tantak Onintza Lete Arrieta
<i>Josu Uranga</i> | 26 | Plazan bazan |
| 6 | Hainbat aburu Maialen Odriozola
<i>Denboraz</i> | 28 | Izpiak eta hizkiak Arnaitz Rubio
<i>Aprea</i>
<i>Mila Bakedano</i> |
| 7 | Errematea Miren Osa Galdona
<i>Zaplatzekoa</i> | 31 | Erreportajea Jabi Gonzalez Toston
<i>Bost hamarkada gorabeheran</i> |
| 10 | Elkarriketa Amaia Urbietta Arruti
<i>Ismael Manterola: "Asko kostatu zaigu aldarrikatzea Arte Ederretan ikerketa egiten dela"</i> | 38 | Hamaika argi gure euskarari
Imanol Azkue Ibarbia eta Daniel Carballo Ostolaza
<i>Hizketa garbia</i> |
| 16 | Kultura Aritz Mutiozabal
<i>Literatura arriskutsu bihurtzen denean</i> | 43 | Agenda |
| 20 | Erretratua Juan Luis Romatet
<i>Iratxe Albizu eta Maite Igual, Otezuri adinekoen zentroko erizainak</i> | 44 | Literatura Antton Peñalba
<i>Itzalen distira</i> |
| 25 | Heziketa Mireia Centeno
<i>Sexualitatearen oinarriak haurtzaroan</i> | 46 | Azkena Juan Luis Romatet
<i>Eta desagertzen badira, zer?</i> |

BALEIKE



Argitaratzailea

Urolako Komunikazio Taldea
Koop. Elk.
Soreasu 1. 20730
AZPEITIA
943-86 15 45
aldizkaria@baleike.eus
www.baleike.eus

Zuzendaria

Juan Luis Romatet
jlromatet@ukt.eus
Erredaktore taldea
Maria Maya Manterola
Onintza Lete Arrieta
Amaia Urbietta Arruti
Aritz Mutiozabal

Jabi Gonzalez Toston

Argazkilaria

Arnaitz Rubio Aprea
Diseinu arduraduna
Ane Azkue
Hizkuntza arduraduna
Imanol Azkue Ibarbia

Publizitate arduraduna

Felix Aizpurua
faizpurua@ukt.eus
Administrazio arduraduna
Uxua Ostolaza
uostolaza@ukt.eus

Inprimategia

Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Lege Gordailua:
SS-405/94
ISSN: 1136-8594
Tirada: 1.000 ale



Gipuzkoako Foru Aldundia

Zumaiako
Udala



Josu Uranga

TESTUA ETA ARGAZKIA: ONINTZA LETE ARRIETA

Arotza zuen aitona, eta lanbide hori ikastea erabaki zuen Josu Uranga Ostolazak (Zumaia, 1966) gaztetxotan. Ordea, arotz ez beste lanbide mordoaz egagutu ditu ordutik, aurten arte. Izan ere, dirulaguntza bati esker, urtebeterako Albaola Itsas Kultur Faktoriara joan da *San Juan* baleontziaren erreplika eraikitzen laguntzera, Zumaia-ko udaletxe-ko brigada lanetik baimena hartuta. Aurreneko sei hilabeteak pasatuta, pozez zorutzen dago.

Ikasketaz arotza zara, eta aurten, hainbat ofiziotan aritu eta gero, gustuko duzun horretan ari zara.

Hala da, bai. Azken urteetan Zumaia-ko udaletxe-ko brigadan nabil lanean, baina ikasketaz arotza naiz, eta beti izan dut arotzerian jarduteko gogoia. Beduola elkarte-ko kidea ere banaiz; aspalditik harreman handia daukagu Albaolakoekin. Bere garaian, neuk esan nien egunen batean arotz bat behar bazuten, akordatzeko nirekin. Eta, halaxe, aurten deitu didate urtebeterako dirulaguntza bat zutelako arotzak eta laguntzaileak kontratatze-ko. Udaletxean eszedentzia hartu, eta hantxe nabil udaberri-rik.

Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Oso ona. Neuk nahi nuen zerbaitetara joan naiz: niretzat amets bat betetzea bezalakoa da. Lan bat da, bai, baina baloratu-za sentitzen naiz. Albaolan gabil- tzan gehienok, gainera, nahi dugulako gaude han, eta hori asko nabaritzen da.

***San Juan* ontzi ikusgarrian ari zara lanean. Zer iruditu zaizu ontzia bera?**

Ontzia lehendik ere ezagutzen nuen, baina, hala ere, sekulakoa da, *marabilla* bat. Gero, egunero lanera joaten zarenez, ohitu egiten zara; jate- txe onenera ere, egunero joaten bazara, gauza bera gertatuko da. Baina, hala ere, sekulakoa da haritz eta egur kantitate horrekin aritzea.

Zer lan egiten duzue?

Orain oso polita dago ikusteko: ikasle talde bat forroarekin ari da lanean, hau da, kanpoko oholekin, eta gu, batez ere, ari gara barrua osatzen; barrua, oso xumea izan arren,

zamaontzia delako, pieza asko-asko ditu. Ni pieza oso handiak moztzen eta jartzen ari naiz.

Egia al da planorik gabe aritzen zaretela?

Bai. Albaolakoen arabera, hau zen garai hartako [XVI. mendea] NASA, beste inon egiteko gai ez ziren ontziak egiten zirelako hemen. Ez zuten planorik egiten, espioitzaren beldurragatik. *San Juan* Kanadan hondoratu zen, eta 500 urtez egon zen ur azpian. Ura oso hotza denez, egoera onean aurkitu zuten 1990eko hamarkadan, eta hango Gobernuak ikerketa zabala hasi zuen; itxuraz, inoiz egin den indusketa garrantzitsuena. Datu pila bat atera zituzten, eta horregatik dakigu gutxi gorabehera nolakoa zen. Gure lana mantsoa da, batetik orain ez dagoelako orduko jakinduria, eta bestetik, gureak baduelako ikerketatik ere.

Zer esan nahi duzu?

Adibidez, gertatu izan zaigu, halako piezak halako tokitan jartzea pentsatu, eta jartzen hasitakoan, konturatzea ezin dela modu horretara egin, azpian zerbait dagoelako. Eta orduan, pentsatu beharra nola egin daitekeen. Dena den, arotz batentzat oso lan polita da hau; lan oso fisikoa ere bada, bestetik. Neka-neka eginda amaitzen dut! Batelekin ohituta gaude, oholtxo bat hartu eta jarri, probatu, kendu, berriz jarri... Albaolan gauza bera da, baina 50-60 kiloko piezekin.

Beduolako kidea zara. Zertan ari zarete orain?

Beduolan proiektu txikiak egiten ditugu, pixkanaka, baina, gure asmo gorena da Beduan zegoen ola, nik umetan ezagutu nuena, berreraikitzea. Basusta baserri-ko Joxe Osa arotza daukagu taldean, eta dinamika handia dugu hari esker: iaz, esaterako, *Hiru Anai* batelaren erreplika egin genuen.

Etiketik jasotako afizioa al duzu hau?

Batelena, ez; arotza izatearena, bai. Aitona nuen arotza: Periko Ostolaza, herrian oso ezaguna. Txikitan, udan eta joaten nintzen aititari laguntzera tailerrera; aulkiak egiten eta ibiltzen nintzen. Gerora ere haren laguntzaile ibili nintzen, jubilatze-ko ordua iritsi baina erretiratze-ko asmorik ez zuelako. Ederra zen, ba! ■■■





Denboraz

Hoge minutu meditatzeko, 20 minutuko aktibitate fisikoa, 20 minutu garapen pertsonalerako. Horixe gomendatu zidan lagun batek lanera itzultzean. Aurkituko duzu denbora?, galdetu zuen. Tira, bada, ez nuen hain zaila ikusten, egunak 24 ordu ditu; ordutxo hori ateratzeko gai izango naiz. Baina, gero, errealitatearekin topo egiten duzu, edo, hobeto esanda, egunerokoak jaten zaitu. Zaintza, lana, lan boluntarioa, bazkariak, afariak, parkea, atsedenaldia, Whatsappeko taldeak, etxea, erosketak.

Zerbait ohitura bihur dadin, hori 90 egunez egin behar omen da. Egutero: 20 minutu; 20 minutu; 20 minutu. Ez zirudien hain konplikatua.

Denboraz justu bizi garela, horixe izango da gure gizartearen imajinario kolektiboan indar handienez iltzatuta dagoen pentsamenduetako bat. Presaka bizi garela, alegia. Esnatu orduko jende askok daukagun lehen pentsamendua lo nahikoa egin ez izanarena da. Bigarrena ere, bizi erritmo eroek sortutako talkekin lotutakoa: "Ez dakit gaur denera iristeko gai izango ote naizen". Ohetik altxa baino lehenago ere, berandu goazen sentsazioa.

NOIZ BIHURTZEN DA EGUNEROKOA NEURTZEKO UNITATE GARRANTZITSUENA DENBORA?

Amaigabeko zerrenda mentalekin estututa.

Zer momentutan bihurtzen da gure bizitzetan denbora hain altxor preziatua? Nolatan hasten gara erlojuaren kontrako lasterketa zoroan? Noiz bihurtzen da egunerokoa neurtzeko unitate garrantzitsuena denbora? Bizitzako beste etapa batzuetan neurgailu garrantzitsuak notak, dirua, etab. izan/izango dira. Bada beti zerbait.

Horrelakoetan, egia mingots batekin egiten duzu topo: ezin zarela denera iritsi. Gero, bigarren errebelazioa dator: lehentasunak jarri behar dituzula; hau da, batzuetan baietz esan behar dela, eta besteetan, ezetz. Aitortzeak mina ematen badizu ere, zuk ere mugak dituzula. Eta, azkena –eta gogorrena–: aukera

HAUXE BAI JENEROA!



ERREMATEA



MIREN OSA GALDONA

Zaplaztekoa

Aza bat lau euroan saltzea astakeria zela kexatu zitzaion bezeroaz nazkatuta idatzi zuen Onintza Enbeitak *Berrian*. Ez naiz ni hasiko aza jatearen onurez edo kalteez hitz egiten, are gutxiago baserritarrak jarri dion prezioa ezbaian jartzen. Izan ere, nago, ez ote dugun gehienetan gertukoa errazegi egurtzen. Enbeitak esan duen bezala, "aza ez da berez sortzen, ezta lapikora berez iristen ere".

Ikerketa lana egin du Biolur elkarateak. Baserritarren lanei enpresa baten gisako sistema ezarri diote, eta ekoizten dutenaren kostu erreala jakin nahi izan dute, euren lanaren balioa azpimarratzeaz gain, erosleok ere ohar gaitzen gehienetan erosten ditugun produktuen prezioak izan beharko luketena baino baxuagoak direla. Ondorioetako batzuk izan dira zazpi barazki motaren ekoizpen kostuak altuagoak direla salmenta prezioa baino; lan hitzarmenak jasotzen dituen urteko ordu kopurua baino % 10 gehiago egiten dituela batez beste baratzezain bakoitzak; ekologikoan ari diren laborarien urte osoko soldata batez beste 14.990 eurokoa dela, eta jasotzen dituzten dirulaguntzak diru sarreren % 5,42 soilik direla. Lurra lantzen dabiltzanek *azakada* edo zaplazteko gutxiegi ematen dizkigute gauza onerako. ■

batzuen alde egiteak beste batzuk galtzea ekar dezakeela. Gauza bat esango dizut: nahiko gauza ebidentea ematen du horrek, baina askori dezente kostatzen zaigu onartzea.

Bizi sistema hau iraultzea izango litzateke aukerarik onena, baina sisteman arrakalak sortzen jarraitzen dugun bitartean (edo horrekin batera) norbere burua ere zaindu beharko dugu. Zer ari naiz jasotzen, ematen, kentzen... hau edo bestea egitean? Zer ari zara jasotzen, ematen, kentzen... hau edo bestea egiten ari zarenean? Aukeratzen duzuna aukeratzen duzula, gaizki sentitu gabe. Ez da ariketa erraza, ez da ariketa samurra, baina batzuetan ezinbestekoa da gauzak galbahe horretatik pasatzea. Asko dago jokoan: zure denboraz gozatzea

merezi duzu (edo behintzat haren esklabo ez izatea). Gorputza eta burua leku berean izatea. Egin behar dituzunen, egin nahi dituzunen eta egin gabe dituzunen arteko kalkuluak uztea. Gelditzea.

Segundo bakoitzari zukua atera beharraren ideia nahiko zabaldua dago gure artean, baina denbora luzez premisa hori mantentzeak, azkenean, geu zukutu gaitu. Ez ahaztu: momentu arruntenetan omen daude bizitzako plazer handienak. Baina lasai, ezer ez da betiko. Edo, ia ezer ez. Batek daki, agian, guri ere iritsiko zaigu nolabait orduak igarotzearen beharrak jota, gurutzeagramak, hizki zopak, sudokuak eta bestelako denbora pasak egiteko premia.

Auskalo, hori ere denborak esango digu, lagun. ■





Baso Magikoa: jolasa, ikasketa, natura eta artearen gunea Zumaiena ikastetxean

Berrikuntza pedagogikoaren bila dabilta ikastetxe guztiak, hezkuntza arloa eta pertsonala hobetu nahian. Azken urteetan, argi eta garbi ikusi da hezkuntzan aurreratuta doazen herrialdeek, Finlandiak kasu, kanpo espazioak eta espazio naturalak barneratuta dituztela beren curriculumean.

Izan ere, egungo eskoletako egituran garrantzitsua da ikasleei mugitzeko aukera ematea.

"Ikasleak sei orduz gelan sartuta mugitu gabe egoteak ez du zentzurik. Hala, hezkuntza erakunde bezala, aspaldi hasi ginen kanpo espazioa erabiltzen, eta Zumaian bizi garenez, zer hobe hondartza eta mendia erabiltzea baino. Horrez gain, ordea, ikastetxean bertan ikasleentzat eredugarria eta erakargarria izango litzatekeen zerbait nahi genuen", adierazi du Isaak Aranberri Zumaienako zuzendariak. Jolasa, ikasketa, natura eta artea uztartuko lituzkeen gunea nahi zuten...

baina nola formulatu nahaspila hori?

Ander Hormazurirekin lanean Zumaienan sinesten dute kontzeptu abstraktu horiek ulertzeko ezinbestekoa dela haiek *bizitzea*. Natura eremua bazuten, baina nola sartu jolasa, artea eta ikaskuntza?

Hor hasi zen Ander Hormazuri artistaren lana. "Prozesua hasita zuten beraiek, eta dagoeneko ikusten zen denak estetika edo lerro jakin bat jarraitzen zuela. Hala, forma geometrikoak eta naturaren arteko erlazioan murgildu nintzen, eta naturak dituen forma denez ohartu nintzen. Mineralek, hostoek, ur tantek, elur malutek... denek dituzte forma geometrikoak. Baita urak berak ere, izan ere, ur garbiak forma bat du, aldiz, zikinak beste forma bat hartzen du. Hala, ura denez existentzia guztiaren sorrera, hortik abiatzea erabaki genuen. Une oro, tantaka egongo den

iturria ezarriko dugu", azaldu du Hormazurik.

Tanta horretatik, ibilbide bat egin dute Baso Magikoan zehar, non gune desberdinak dauden, eta azken espazioa, erlauntzaren edo domoaren begiradara iristen zaren.

Erlauntzaren begirada horrek bat egiten du aipatu dugun hasierako uraren forma hexagonalarekin. "Bidaia egitea proposatzen zaie ikasleei. Forma geometrikoak eta ikaskuntza nahastuz, pentagonoa, karratua edota triangelua ezarri dira, eta guztiek dute bere ikaskuntzarako espazioa, adin tarte desberdinetara egokituta. Haurraren ikuspuntutik jolas eremua da, baina, behin sartutakoan, ez da jolas eremu soila; eskola bezala, kurrikularki arlo desberdinak jorratu ahal izango ditugun guneak ditu, 0 eta 18 urte bitarteko ikasleentzat gainera, bakoitzak bere moduan landuko duelarik. Arlo desberdin horiek zeharka jorratzeko aukera eskaintzen






digu, eta dena estetika batekin, artearekin, naturan murgilduta, geometriarekin barneratuz. Horrek sortzen du magia!" gaineratu du Aranberrik.

Baso Magikoaren sortze-prozesu guztia hezkuntza komunitatearekin elkarlanean egin dute: hau da, ikasle, irakasle eta familien proposamenekin eta lanarekin. Adibide gisa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak dagoeneko ari dira ur tantaren inguruko lanketa berezia egiten, ikuspegi zientifikoa eta artistikoa uztartuz.

"Errazena iturri bat erostea eta jartzea izango litzateke, baina, ikasleekin lan hori eginez, artea eta natura ikasketekin eta jakintzarekin lotzen ditugu. Eta hori da, hain zuzen, Baso Magikoaren oinarria", esan du zuzendariak. Izan ere, **motibazioa eta ilusioa dira ikaslearen motibazioaren funtsezko zutabeak.**

Hezkuntza sistema eskola porrotak diren haurrez beteta dago, eta arazoa hezkuntzan dago, ez duelako asmatu jakin mina sortzen ikasle horiengan. "Gurekin elkarlanean



diharduen Rafael Cristobal psikiatraren esanetan, ez dago ikasi nahi ez duen haurrik, haurra motibatzeke gai ez den hezkuntza sistema baizik. Eta hori da Zumaienak lortu nahi duena. Zailtasun berezirik ez duen ikasleak ez du oztopo handirik aurkituko bere ibilbidean, baina ikasle guztiak hartu behar ditugu kontuan, eta eremu naturalek funtsezko funtzioa daukate ikasleen motibazioan. Kanpo espazioek, beraz, balio erantsi

erabakigarria eskaintzen dizkigute".

Hormazuri artista ados dago erabat Aranberriarekin, eta Baso Magikoa itxi gabeko proiektua dela ziurtatu du: "Azkenean, asko ikasi dut prozesu hau guztia garatzen, eta hori transmititu nahi izan dut: etengabeko ikaskuntza, alegia. Amaitzen ez den proiektua da honako hau, bukatzen ez den artelana, beti egongo delako zerbait egiteko". ■

"Asko kostatu zaigu aldarrikatzea Arte Ederretan ikerketa egiten dela"

ISMAEL MANTEROLA EHUKO ARTE EDERRETAKO FAKULTATEKO DEKANOA

Duela 32 urtetik Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle da Ismael Manterola (1966, Zumaia), eta duela hilabete gutxi Arte Ederretako fakultateko dekanorik arduratsua hartu du.

Testua: **Amaia Urbieto Arruti**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea**.

Kudeaketa lana konplexua dela badaki Ismael Manterola EHUKo Arte Ederretako fakultateko dekanorik berriak, eta aurreko dekanotzak ezarritako gidalerroei jarraia, fakultatearen presentzia lantzen jarraituko du, unibertsitatearen barruan nahiz bertatik kanpo. Egokitu zaion lana "itsusia" dela esan du, baina zuzendaritza ardurak txandaka betetzearen aldekoa da, jendeak jakin dezan kontuek nola funtzionatzen duten.

Zein izan da zure ibilbidea EHUn?

Gasteizen ikasi nuen, han zegoelako Historia eta Geografia diplomatura. Gero, espezialitatea egin nahi izan nuen Artearen Historian, eta Valentziara (Herrialde Katalanak) joan nintzen. Horregatik,

nire lizentziatura Valentziako unibertsitatekoa da. Bukatu eta gutxira, lanpostu batzuk atera ziren Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle aritzeko, eta harrezkero, han egiten dut lan.

Kuriosoa da, ikasle greba baten ondorioz atera zirelako lanpostu horiek. Euskarazko irakaslerik ez zeukaten ikasleek, gaztelaniazko lerroa bakarrik zegoen, eta horren ondorioz, 1989-1990eko ikasturtea oso gatazkatsua izan zen Arte Ederretan. Presio horri esker atera zituzten plaza batzuk. Ematen du beti izan dela horrela, baina borrokaren ondorioz lortu izan dira zenbait gauza, gaur egun normaltzat ditugunak.

Gaur egun egin daiteke osorik gradua euskaraz, aukeratzen dituzun hautazko irakasgaien arabera. Batzuk ez daude euskaraz, jende kopuru txikia dutelako. Bikoizketa horrek eragingo luke are





Zumaiako artelan, kulturune eta artisten inguruko dibulgazio lan ugari egin ditu Ismael Manterolak azken aldian.

txikiagoa izatea irakasgaia, eta hori kalterako litzateke.

Nolakoa izan da dekanotzara jauzia?

Une honetan, fakultatean oso momentu berezian gaude, belaunaldi aldaketan. Irakasle asko jubilatzen ari dira. Arte Ederren fakultatean irakasle asko aldi berean sartu ziren bere garaian. Berriak sartzen ere ari dira, baina horiek ezin dute dekanotza izan, pixka bat despistatuta dabiltzalako oraindik. Oso jende gutxi sartu ginen 1990eko hamarkadan. Talde oso txikia gara, baina guri zegokigun dekanotza hartzea. Inork pausoa ematen ez zuenez, erabaki nuen neuk ematea.

Dekanotza, azken finean, zuzendaritza da, eta hori behar du fakultate batek. Taldea osatzea ez zen erraza izan, nahiz eta aurreko taldeko jende asko geratu den, eta eskerrak horri.

Zergatik izan da zaila taldea osatzea?

Gaur egun, unibertsitatean arazo handi samarra dago: jendeak ez ditu hartu nahi ardura karguak. Kudeaketa karguak ez dira baloratzen beste irizpide akademiko batzuekin alderatuta. Jende gehienaren joera da karrera akademikoa egitea, hori delako erakutsi duena unibertsitateak, eta sistemak berak.

Kargu hauetan diru gehiago irabazten da, baina ez du konpentsatzen. Ardura handiak dira, eta jendeak ez du nahi sartu lokatzetan; erosotasunera jotzen du. Gizartean oro har gertatzen da, inork ez du hartu nahi fakultate bateko zuzendaritza, baina ezta eskola edo institutukoa ere. Jendeak ez du nahi hartu etxebizitzako ardurarik ere. Eroso nahi du bizi jendeak, baina bateren batek egin behar du. Uste dut ez dela ideia txarra txandaka denoi egokitzea, horrela ezagutu daitekeelako zer gertatzen den.

Zein dira dekanoareen ardurak?

Zuzendaritza, oro har. Erabakiak hartzea, eta kudeaketa lana. Administrazioa bat egoten da, baina azken ardura dekanorena da.

Asko aldatu al du horrek zure egunerokoa?

Unibertsitateko irakasle denok hiru adar dauzkagu: irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa. Kudeaketak esan nahi du batzordeetan ere egon behar duzula. Orain, dekanotza izanda, pisu handiagoa hartzen dit kudeaketak, eta irakaskuntzak eta ikerketak gutxiago.

Zer moduz joan dira lehen asteak?

Iraila gogorra izan da, baina aurreneko urtea da, eta oraindik despistatuta nabil. Ea martxa hartzen dugun, oraindik zenbait gauzari tamaina hartzeko nago eta.



**"DEKANOTZA, AZKEN FINEAN,
ZUZENDARITZA DA, ETA HORI BEHAR
DU FAKULTATE BATEK"**

**"NIK NAHIKO NUKE
UNIBERTSITATEKO IKASLE GUZTIEK
GOZATZEA EGITEN DUTENAREKIN"**

**"PENA BAT DAUKAT, IRAKASKUNTZA
ALDE BATERA LAGA BEHAR
DUDALAKO, KUDEAKETAREN ALDE"**

Baduzu Arte Ederren fakultatean egin nahiko zenukeen aldaketarik?

Aurreko dekanotza taldeak gidalerro batzuk markatu zituen, eta nire asmoa da horretan sakontzen jarraitzea, proiektu anbiziotsu eta handirik gabe. Bi helburu nagusi ditugu: Arte Ederren presentzia handitzea unibertsitatearen barruan, eta baita kanpoan ere, gizartean.

Lehen asmoari lotuta, guri asko kostatu zaigu aldarrikatzea gure fakultatean ikerketa egiten dela. Beti dago topiko bat Arte Ederrekin lotuta: ondo pasatzen dugula, jendea berezia dela... eta egia da, baina irakaskuntza zentroa gara, eskolak ematen dira eta ikerketa egiten da.

Unibertsitateak oso garbi eduki du beti zientziaren ikerketa zer den, baina arteetan ikertzea zer den jendeak ez dauka horren garbi. Gure lana izan da aldarrikatzea guk ere ikertzen dugula, eta gure jakintza akademikoa ere badela, ez gehiago, ez gutxiago. Baina jendeari iruditzen zaio zientzia inportanteagoa dela. Gauza batzuk aldatzen hasi dira, baina oraindik asko dago

a3 diseinua
inprimatzea

Alai 8. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
tel: 943-14 31 22 • fax: 943-14 31 20
a3@a3zumaia.com • www.a3zumaia.com

f t i

Agurtzane Okindegia

Erribera 2 • 943-96 21 52

Aita Mari
JATEXEA
ZUMAIA

☎ 679 10 31 67
📍 Juan de Zigarán, 1
Zumaia
@aitamarijatexea@gmail.com

f i

AIZPURUA
LIBRURIA
DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943-86 15 69

AL-ANON

Alkoholiko senide eta lagunen elkarte
Tel. 650 26 59 63
Ordutegia: asteazketan, 20:00-22:00
larunbatetan, 19:00-21:00

ALBERDI
dekorazioa

• Eskaiola
• Pladur-a

☎ 696 72 61 88
943-14 32 61

Amama
taberna

tel. 943-57 46 51
amamataberna@gmail.com
Ortega y Gasset kalea 4. Zumaia (Gipuzkoa)

Ane Ibarretxe • Hariz Klinika

Árdantzabide, 3 behe • Zumaia
☎ 943-54 35 70 • ☎ 688 73 38 56

OKINDEGIA
Arkupea

Naupasa, 2 • tel. 943-96 15 21
ZUMAIA

OGI-EDER

ATARI
TABERNA

Pintxo bereziak eta olagarro-zopa

Árdantzabide, 16 • Tel. 943-50 91 69

Bosch Service
Bosch Car Service

Autos Zumaia

Gasolina injezioa Balaztak, ABS, ESP
Diesel injezioa Mantentze mekanika
Elektrizitatea/Elektronika Motorren mekanika
Piztea Hozte sistemak

Urola plaza 3-5 Tel. 943-86 14 85
autoszumaia@bosch-bcs.com

AXA

943-53 03 97
688 71 26 21
Kantauri 2, behe
aseguruak.zumaia@agencia.axa.es

finés, francés, euskara, inglés, español, catalán, suomi, baski, català, finès, français, anglès, català, francès, castellano, finès, inglés, basco, català

Bakun
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L.

San Isidro, 25
20749 Arroa
tel./faxa 943-14 83 06
bakun@euskalnet.net

Basadi
albaitaritza

Albaitaria
Maki Garmendia

Basadi, 7, behe • tel. 943-14 33 10
veterinaria@basadidivinet.com
www.basadidivinet.com

Golze: 11-13 / Arribak: 15-19:30 / Astelehen golzean eta larunbatetan itxia
Larrialdetarako: 605 72 87 07 Etkez etveko zerbitzua

BASUSTA
erretegia • asador

José Blázquez

Patzita Etxezarreta, 25 Tel.: 943-86 20 73
20750 Zumaia (Gipuzkoa) 943-86 04 38
asadorbasusta@hotmail.com

EDU
ZUMAIKOA
OPTIKA

Txomin Agirre kalea, 6
20750 Zumaia, Gipuzkoa
943-14 30 57
www.eduoptika.com

RPS 18/16

LIZZE

EGOKI

Erloju
eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943-86 17 87

egiteko. Gure lanak askotan ez dauka ez presentziarik, ez errekonozimendurik.

Esaterako, Komunikazio kabineteok eskatzen diguten gauza bakarra izaten da gure argazkia alaia izatea, koloretsua eta polita. Guk ez dugu irudi hori eman nahi. Ez da guztiz gezurra, baina topiko bat da, azkenean. Nik nahiko nuke unibertsitateko ikasle guztiek gozatzea egiten dutenarekin, ez guk bakarrik.

Beste helburua kanpo proiektzioarena da. Inportantea da, guk harreman handia baitauekagu kultura instituzio publiko nahiz pribatuekin. Gure lana gizarteari begirakoa izaten da, komunikatzea du helburu. Artelanak ez dira fakultatean geratzeko, komunikatiboak izatea da helburua, eta harreman horiek mantentzea guretzat inportantea da.

Jende kopuru aldetik, zer-nolako dentsitatea dauka fakultateak?

Gutxi gorabehera, 1.000 ikasle inguru daude. Konplikatua da, ikasleen kolektiboa oso handia delako, baina ez daude oso antolatuta, ez dago interlokutore konkreturik. Badago ikasle kontseilu bat, baina jendeak ez du harreman handirik beraiekin. Kolektibo konplikatu samarra da, asko direlako eta atomizatuta daudelako.

Beste kolektibo bat da irakasleena, horiek ere asko dira, 200dik gora. Hori ere kolektibo zaila da, bakoitzak bere berezitasun eta arazoak dituelako, eta dena zuzendaritzak kudeatu behar duelako. Hirugarren kolektiboa langileena da. Irakasle ez diren 40 langile dauzkagu. Administrazioak, idazkaritzakoak, garbitzaileak, modelak eta teknikoak. Horiek antolatuta daude sindikatuetan, eta ezberdina da.

Esan duzu hiru adar dituela zure lanak; horietatik zein duzu gustukoena?

Niri eskolak ematea gustatzen zait. Alde horretatik, pena pixka bat daukat, irakaskuntza alde batera laga behar dudalako, kudeaketaren alde. Dena den, masterreko klaseak mantenduko ditut, eskolak ematea gustatzen zaidalako.

Nik uste dut kudeaketa lanak denon artean txandaka egin beharko genituzkeela. Hor zaudenean, konturatzen zara denok daukagula gauzak exijitzeko joera. Gaur egun, gainera, ohitura handia dago momentuan eskatzeko. Jendeak alaketak orain nahi ditu, eta agian ez da posible. Fakultatean bi indarren artean gaude: behekoek gauzak eskatzen dituzte, eta goikoek esaten dizute ezin dela. Gure lana da



hori moldatzea. Jende askok ez du ulertzen, jendea sututa ibiltzen da gauzak eskatuz. Ez dakite zenbat kostatzen den milimetro bat mugitzea horrelako instituzio handi batean. Mugatutako aurrekontu batzuekin funtzionatzen dugu, eta Eusko Jaurlaritzak ematen du dirua, guztion artean ordaintzen dugu. Finean, gure lana itsusia da. Jendeari esan behar diozu baietz, ahaleginak egingo dituzula gauzak aldatzeko, baina ezin duzu ezer agindu.

Azpiegiturekin gertatzen da, esaterako. Gure fakultateak badauzka urte batzuk, zenbait gauza berri egin behar dira, baina horretarako dirua behar da, eta guk ez ditugu gauza horiek kudeatzen. Fakultate batek maniobrarako daukan marjina ez da handia, dekanotza batek ezin ditu gauza asko aldatu. Jendea etortzen da nire bulegora ni Lourdes izango banintz bezala, baina oso mugatuta gaude. ■■■

Literatura arriskutsu bihurtzen denean

Haizete baten moduan igaro zen Joseba Sarrionaindia Irakurri Matte irakule taldearen azken saiotik, hautsak aski harrotzen. "Literatura da gaizki idaztea", "bilatu dezagun okertasuna" edo "elkar komunikatzeko borondaterik ez badago, nazioa ideia tontoa da" bezalako harribitxiak utzi zituen. Ohi baino jende gehiago bertaratu zen solasaldian, ez zuen inor aiherga utzi.

TESTUA ETA ARGAZKIAK:

ARITZ MUTIOZABAL

Alondegiko Mola gelako mahai-inguruan batzen dira hilero Irakurri Matte irakurle taldeko kideak, patxadaz eta lagunarte literarioan, irakurritako liburua despiskatzeko. Azken etxeko lana *Bizitza ez al da arriskutsua?* aztertzea izan dute, Joseba Sarrionaindiaren Habanako Gaukari trilogiako lehen emaitza, eta hori gutxi balitz, egilearekin aurrez aurreko topaketa egiteko aukera eduki zuten urriaren 11n. "Gaurkoa berezia da guztiontzat, Josebaren bizitza, literatura idazteko baldintzak, euskal irakurle eta herritar askorentzat esan nahi izan duena aparta bezain ohiz kanpokoia izan delako. Beraz, gaurko saioa ere ohiz kanpokoia izango da", aurreratu zuen irakurle taldeko gidari Uxue Alberdik.

Aurkezpen modura, *lagun izoztuari* antzizarra kendu eta taldearen epelera ekartzeko aldera, dinamizatzaileak galdera-erantzun bidez ekin

zion saioari. Harrituta eta itxuraz lotsati iritsi zen idazle iurretarra, "ederra kuadrilla!" esanez. Antza denez, apenas ibili den bere obra literarioa irakurleekin partekatzen: "Pare bat edo egin ditut *Panza de burro* liburua komentatuz", esan zuen. Irakurleek adi-adi begiratzen zioten, ea hezur-haragizkoa ote zen azal gorridun eta ilea guztiz urdindua zuen gizon txiki eta sendo hura. Urteak pasatu dira hilezkortuta geratu den gaztaroko zuri-beltzeko argazki mitiko hartatik. Bat-batean, ordea, berezkoa duen irribarre pikaroi ihesi zitzaion, Alberdik galdera zirtolari bat egin zionean: "Nola daramazu Joseba Sarrionaindia izatea?".

"Amak beti esaten zidan gauzak ongi egiteko, baina ez nabarmentzeko. Nire belaunaldiko guztioi hori erakutsi ziguten etxean. Nik gauzak gaizki egin ditudanez beti, bada, arraro daramat". Barre algarak lehertu ziren idazlearen aitoren hitzekin: "Idazle bezala nire ikuspegia izan da gela batetik mundua

behatzekoa. Nik kanpokoia ikusi, inork ni ikusi gabe. Gero Euskal Herrira itzuli naizenean, oso arraroa egin zait guztia".

Euskal Herriaren lau hamarkada hauetako bilakaera "zorionez edo zoritxarrez" kanpotik bizitzea tokatu zaiola kontatu zuen. Perspektiba horretatik idatzitako liburua da *Bizitza ez al da arriskutsua?* Epifania txikiz osatuta, "lekuko galdu moduan" ikusten dituen edo ardura zaizkion gauzei buruz idatzitako lana da. "Noraeza da gaia, nolabait ere". Hortik abiatuta, gai mamitsuez jardun zuen hizketan; batik bat, euskaraz, euskal literaturaz, euskal gizarteaz eta politikaz, baina baita zenbait bitxikeriaz ere: "Ba al dakizue nola kontatzen duten genesia Kuban?"...

Euskal literatura, "pobrea"

Oro har, ikuspegi *hater* samarra eman zuen egungo euskal gizarteari buruz. "Euskal literaturan euskara batua landu da, eta lengoaia hori da oso kultua, landua eta arautua gramatikalki. Horrek izan zuen




arrakasta oso beharrezkoa zen, baina arrakasta hori bera da gero eskasia baten ondorioa. Erregistro sozialak falta dira eta dialektikoak ere galdu ditugu. Esaterako, bizkaiera ez da txertatu batura. Sortu dugun eredu oso erredukzionista da, eta literatura egitea ez da ongi idaztea edo eredu bat errepikatzea, baizik eta gauza berriak egitea".

Bere iritziz, egungo euskal literatura "oso pobrea" da. "Hori esan beharra dago, bestela daukagunarekin konformatuko gara". Azken 20 urteetan zerbait gainditu dela uste du, eta hori emakumeek egin duten literaturan igarri dela azaldu zuen, Miren Agur Meabe, Uxue Alberdi eta Eider Rodriguez aipatuz. "Diskrezioa eta intimitatea gordetze hori

aldatzen joan da azken hamarkadetan, eta lortu da hizkuntza eramatea forma nahiz eduki intimoagoetara. Aurrerapen handia izan da hori, baina horrelako modeloen hedapenak edo joerak indartzeak zentzu askotan egin behar dira. Nolanahi ere, sozialki daukagun literatura unibertsitarioa da. Ez daukagu gazteen lengoaiarik, ahozkitasunetik oso urrun dago eta oso normatiboa da".

"Eta nola irakasten da literatura idazten?". *Human behaviour* periodistikoak egiteko zeregina eman zioten kazetari honek ezin izan zion gogoari eutsi, eta literaturzale moduan egin zion galdera idazleari, ondo jakinda asteburuetan literatur tailerrak eskaintzen ari dela Zumaian bertan. "Gaur





egun, hemen ez dago unibertsitate askorik, eta autodidakta da hein handi batean literatura. Baina, beno, badaude elementu batzuk ikas daitezkeenak; besteak beste, liburuak irakurriz".

Irakurle taldeko kide Javier Eizagirrek komentatu zion Sarriri, nonbait beste idazle bati irakurrita, gauza bat dela ongi idazten jakitea eta beste bat, oso diferente, literatura idazten jakitea: "Zer kontatua ez baduzu, ez daukazu zer idatzirik, ezta?". Sarrik ez zuen birritan pentsatu, eta literaturaren dekalogoko lehen araua eman zuen: "Literatura idaztea da gaizki idaztea. Eredu ohikoetatik eta komunetatik apartatzea, Bertrand Russellek esaten zuen bezala". Horri ondorengoa erantsi zion: "Zuzentasunera iritsi gara; orain, bila dezagun okertasuna".

Anton Peñalba taldeko kide beteranoak galde egin zion Euskal Herria urrutitik behatzeko perspektiba horri buruz; izan ere, bere liburuan "herri eraikuntza" presente dagoen gaitako bat dela igarri zion. Idazle iurretarrak euskara batuaren eraketarekin alderatu zuen: "Ortografia batzeko 400 urte baino gehiago behar izan dugu, Etxeparek liburua argitaratu zuenetik 1980ra arte, eta entzun egin behar ziren 1970eko eztabaidak. Politikarekin gauza bera gertatu da: ados jartzeko gaitasunik ez dago. Nazioa da jendea elkartzea, elkar komunikatzea, elkar antolatzea, eta ez badago horretarako borondaterik, nazioa ideia tontoa da. Baina badago gogoeta bat euskaldunok geure burua antolatzeko ezintasun historikoaz".



Eskertzeko zintzotasuna

Idazlearen presentziak ohi baino jende gehiago animatu zuen, eta horrek dinamika ezberdin egin zuen arren, pozgarritzat jo zuen amaieran Javier Eizagirrek. Gainera, Sarrik azaldutakoa "interesgarri samarra" iruditu zitzaion: "Bere ikuspuntu ezkorra nabarmendu nahiko nuke, bai euskal literaturari buruz, bai euskarari buruz, inork eskatu gabe, gainera". Eizagirrenen ustez, idazlea "busti" egin zen bere diskurtsoarekin: "Gainerako parte hartzaileok moztu egin gara. Egoera oso ezberdina izan delako, gaur etorritakoak ezezagunak zirelako, eta... Baina, Sarriren kasuan, adibidez, erakutsi du ez duela inolako arazorik bere ikuspuntu soziala erakusteko. Nire ustez, eskertzekoa da zintzotasun hori. Gero, beste kontu bat da berekin ados zauden ala ez".

Saioaz oso balorazio positiboa egin zuen Irakurri Matteko kide Joxe Fran Ispizuak, nahiz eta liburuari buruz gehiago hitz egitea faltan bota zuen. "Besteetan gehiago sakontzen dugu aztertzen dugun liburu horretan, eta tripak ateratzen dizkiogu. Oraingo honetan, aitzitik, tripak hortxe geratu

dira. Edonola ere, oso gustura geratu naiz, zeren liburuan ez sakontzeak ez dio xarmarik kendu saioari", zehaztu zuen saioa bukatu berritan. "Sarri da bukaerarik gabeko iturria, bere jarioa zoragarria da, eta Koldo Mitxelena ekartzen dit gogora beste maila batean. Izan ere, modu batera hitz egiten hasten da eta, halako batean, konturatzen zara, batetik zein bestetik ibili eta gero, nora eraman zaituen. Erraztasun hori dauka", laudatu zuen.

Larunbatetako Literatur Tailerretan dabil Ispizua Sarrionandiarekin, eta espero zuen halako dinamika hartuko zuela solasaldiak. "Jada ezagutzen ari naiz nolakoa den, baita bere diskurtsoa ere. Oso gustukoa dut, eta, gainera, iruditzen zait hain egituratuak ez diren horrelako diskurtsoen premia dugula". Bere kuadernoan hausnarketa horiek jasotzen aritu zen saioan zehar, nolabait ere, "bere jarduna bezala, era itxuraz kaotikoan". Baina ez zen bakarra izan, irakurle taldeko beste zenbait ere halaxe ibili baitzen. Idazle bakoitza da ezberdina, bakoitzak ekartzen du bere liburua, eta bakoitzak du bere



nortasuna. Oraingoan gutxiegi landu zuten liburua, arlo pertsonalera gehiago joz.

Dena den, partaideek argi eta garbi dutena da irakurtzea plazera dela, eta Eizagirrek esan zuen bezala, "luxu bat da irakurtzeaz gain, liburu bera irakurri dutenekin iritziak eta ekarpenak partekatzea, eta, bestalde, egilearenak ere jasotzea". ■

Erizain soilak baino askoz gehiago

Iratxe Albizu eta Maite Igual, Otezuri adinekoen zentroko erizainak

Otezuri adinekoen zentroa zabaldu bezain pronto hasi ziren bertan lanean Iratxe Albizu eta Maite Igual. Urte hauetan guztietan une politak bizi izan dituztela esan dute, baina COVIDak eragindako amesgaiztoaren lekuko zuzenak ere izan dira. Beraien lanaren berri eman diote *BALEIKERI*.

Testua: **Juan Luis Romatet**. Marrazkia: **Irene Irureta eta Karmele Gorroño**.

Txandatan egiten dute lan: bata goizez dagoenean, bestea arratsaldean dago, eta alderantziz. Ez da erraza biak batera aurkitzea beraien jardunaren inguruko bizipenak jasotzeko. Azkenean, Otezuri bertako kafetegiko terrazan jarri dute hitzordua, lantokitik metro bakarrera bada ere, lasai hitz egiteko.

2009. urtean zabaldu zuten Otezuri adinekoen zentroa Puntanoetan, eta lehen urtetik dira biak egoitzako erizainak: Maite Igual Lazkano (Zumaia, 1982) ateak zabaltzearekin batera hasi zen Otezuri lanean; Iratxe Albizu Florez (Zumaia, 1978), aldiz, urte erdi geroago, haurra izan eta gero. "Aurretik Osakidetza osasun zentroetan egin nuen lan, baina ondoren gerontologia arloan hasi nintzen lanean, lehenbizi Donostian, eta 2009tik, Zumaian", esan du Igual. Albizuk, berriz, Nafarroako Unibertsitatean egin zuen lan Zumaia itzuli aurretik. "Kirofanoko erizaina nintzen Iruñean, baina aldaketa bat izan nuen nire bizitzan, eta hemen bukatu dut. Han, operazioetan, barrutik ikusten nituen pertsonak; orain kanpotik ikusten ditut, beste ikuspuntu

erabat desberdin batetik. Eta asko gustatzen zait", azaldu du. Iritzi berekoa da Igual: "Hemen pertsona bere osotasunean ezagutzen duzu".

Adinekoen egoitzetara salto egiterakoan formazio berezirik ez zuten izan.

"Esperientziarekin joaten zara ikasten. Zure erremintak dauzkazu, eta haiekin egiten duzu lan. Zerbait progresiboa da. Egia da urteak aurrera doazen neurrian hobeto sentitzen zarela; ikasten joaten zara, eta konturatzen zara oraindik eta erreminta gehiago dituzula".

Goizeko 8etatik gaueko 10ak arte egiten dute lan erizainek, bi txandatan banatuta. Otezuri ez da zentro soziosanitarioa eta, beraz, gaueko erizaintza zerbitzurik ez dago. "Lanegun bateko lehen ardua gaueko txandan aritu diren laguntzaileekin hitz egitea da, eta gauean gertatutakoaren berri ematen digute. Gero, sendaketen karroa hartzen dugu, eta solairuz solairu joaten gara sendaketak egiten, tentsioa hartzen, indizioak jartzen... Hori bukatutakoan, sendagilearekin egoten gara, eta ematen diogun informazioarekin, badaki zer bisita egin behar dituen. Ondoren, tratamenduekin hasten gara, egunean izango ditugun medikazioak prestatzen,



irrimarra



baita hurrengo egunekoak ere. Arratsaldean, berriz, gestio telefonikoak egiten ditugu gehienbat, familiekin hitz egin, etab.", esan dute bi erizainek.

Ikusita zer zeregin dituzten, norbaitek pentsa dezake erizainen lana oso monotonoa dela. Errealitatea, baina, oso bestelakoa dela diote. Egoiliar bakoitzaren arabera, eta dituzten gaixotasunak aintzat hartuta, egun guztiak desberdinak direla azpimarratu dute. "Egunean bertan gauzak zeharo alda daitezke, gainera. Goiza lasai antzera has dezakezu, eta derrepente, norbait aztoratu daiteke, eta harekin solairu guztia nahasi", kontatu dute. "Asteburuetan eta arratsaldeetan, sendagilerik ez dagoenean, denerako egon behar duzu, eta beraiek ezin zaituzte urduri ikusi; hori berehala nabaritzen dute. Nahiz eta barrenean urduri egon, gaizki egon, beraiei erakutsi behar diezu lasai zaudela, egoera kontrolpean duzula. Eta batzuetan kostatzen da, zu ere ez zaudelako egunero berdin". Ondo ezagutzen dute barne borroka hori,

askotan, sarritan, egoiliarrekin psikologo lanak ere egitea tokatzen zaie eta beraien lanean.

Lan honetan talde edo ekipo bat izatea ezinbestekoa dela uste dute. "Eta gu ondo konpontzea. Egoera batzuk oso larriak dira, eta gure artean ondo eramaten bagara, dena errazago ateratzen da". Lankide guztiena, baina bereziki, laguntzaileen lana goraipatzen dute. "Haiek egiten duten lana ezinbestekoa da. Lan asko beraien bizkar uzten dugu, solairu bakoitzean beraiek egoten direlako. Beraiek dira, gainera, egoiliarrek hobekien ezagutzen dituztenak".

2020ko udaberrian eztanda egin zuen COVID-19aren izurriteak bete-betean jo zuen gizarte osoa, baita adinekoen egoitzak ere, eta Otezuri ez zen salbuespena izan. "Kaos" hitzarekin laburbildu dute orain bi urteko udaberrian bizi izan zutena, bereziki lehen egunetan. "Ez geneukan ezer. Nondik hasi ere ez genekien. Egun batean protokolo bat heltzen zitzaigun eta, ordubetera, kontrakoa zioen beste mezu bat", gogoratu dute. "Ez genuen denborarik ere.

Iratxe Albizu Florez

- **Adina:** 44 urte.
- **Ikasketak:** Erizaintza Nafarroako Unibertsitatean.
- **Lanbidea:** Erizaina.
- **Erizaina ez banintz...** Txikitan sendagile forentsea izan nahi nuen. Halako filmak gustatzen zitzaizkidan. Baina, denborarekin, nahiago izan dut biziekin lan egin hildakoekin baino.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Azkenaldian denok elkartzea, buelta bat eman, lasai egon. Konplikatu gabe.

Maite Iguar Lazkano

- **Adina:** 40 urte.
- **Ikasketak:** Erizaintza Euskal Herriko Unibertsitatean.
- **Lanbidea:** Erizaina.
- **Erizaina ez banintz...** Osasunarekin zerikusia duen zerbaitetan egingo nuke lan. Ez dut neure burua beste ezertan ikusten.
- **Lanetik ateratzean gogoko dut...** Egunaren arabera, etxean lasai egotea. Bestela, kalera atera, buelta bat eman, eta familiarekin edo lagunekin zerbaite hartzea.

COVIDa zuten egoiliarrak tratatu behar genituen, baina eguneroko beste lanak ere egin behar ziren; COVIDa ez zuten beste egoiliarrek ere gure beharra zuten. Aurrera egin behar izan genuen, aurrera, aurrera. Buruari buelta gehiegi ere ez genizkion eman: gauzak egin behar ziren, eta hala atera genuen guztia aurrera, denon artean".

Egun normal batean laneko ardurak aldagelan uzten saiatzen dira, baina COVIDaren aro ilunean hori ezinezkoa zela azaldu dute. "Ni lanean nengoen, senarra ere bai, eta umea etxean geratzen zen. [Lanaldiko] murrizketa bat edukitzetik %100era pasatu nintzen lanean. Hona etortzen nintzenean pentsatzen nuen umea etxean utzi nuela, eta kezka hori nuen, bai hemen, baita hemendik ateratzen nintzenean ere. Eta beldurra nuen, ez ni kutsatzeko, baina bai nire ingurukoak kutsatzeko. Nik guztiz babestu nahi nituen", esan du Igualek.

Heriotzak ere kolpatu zuen Puntanoetako egoitza. Hamarretik gora egoiliar zendu ziren COVIDak eragindako gaixotasunengatik. Egoera gogorra izan zela diote, baina agian ere gogorragoa egin zitzaizen gaixoak erietxeetara

bideratu behar izan zituztenean, ez zekitelako bueltan etorriko ziren. "Egoera gogorrek ikusi behar izan genituen hor". Bizitzak konfinatu ziren garai hartan, hainbat lagun ateratzen ziren leihoetara zein balkoietara txalo zaparradekin osasungintzako eta larrialdietako langileek egiten zuten lana eskertzeko. Eskertza hori pertsonalki ere sumatu dutela diote bi erizainek. "Familien bultzada handia izan genuen. COVIDa zuten egoiliarren familiekin egunero hitz egiten genuen telefonoz, eguna nola pasatu zuten esateko, eta hor, eskertza mezu pila bat jaso genuen".

Agian ez da erraza gogoratzea zentro horietan bizi diren egoiliar asko, gehientsuenak, bertan zenduko direla. "Egoiliar batzuk denbora baterako etortzen dira eta gero etxera doaz bueltan, baina beste asko hemen geratzen dira, eta bukaera ere hemen izaten dute. Ospitalera bideratutako batzuk izan ezik, ia gehienak bertan hil dira. Prozesu bat da, eta hor harreman sakonagoa izaten dugu familiekin. Bukaerako orduan ia familiarteko guztiek eskertzen digute egindako lana; emandako zerbitzua eskertzen dute. Eskertza horrek asebetetzen gaitu", diote. ■



BALEIKE DAGO?

Baleike pertsonaia aldizkariaren zein orrialdetan dagoen ezkutatuta aurkitu behar da, eta erantzuna aldizkaria@baleike.eus e-posta helbidera bidali azaroaren 25a baino lehen.

Saria: TIPITakin bi lagunentzat gosari eder bat. Baleikeko Komunikazio Taldean bazkide izatea da baldintza bakarra.

Akats bat dela medio, urriko aldizkarian ez genuen ezkutatu Baleikeren irudia. Barkatu endreduak.



EGIN BAZKIDE ETA %30 EKO
DESKONTUA IZANGO DUZU

bazkide@ukt.eus • 943-81 38 41

BALEIKE

LAGUNTZAILEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia



Sexualitatearen oinarriak haurtzaroan



MIREIA CENTENO

PSIKOLOGOA

Noiz hasi behar dugu gure seme-alabekin sexuaz hitz egiten? Oso ohikoa izaten da galdera hori, eta erantzuna oso erraza da: betidanik. Gure haurrekin jaiotzetik hitz egin behar dugu sexualitatea bizitzeko oinarriez. Jaiotzetik gara izaki sexuatuak, eta jaiotzetik ezagutu behar dugu gure gorputza. Horretarako, gurasook bidelagun izan behar dugu. Hona hemen kontuan hartu beharreko zenbait puntu:

- Gure gorputz atalak: hurrei txikitatik erakusten diegu non dituen besoak, behatzak, sudurra... Hasieran, ikusten diren gorputz zatiekin hasten gara, eta, gero, umeak heltzen doazen heinean, ikusten ez direnekin. Besoari *besoa* deitzen diogu, belarriari *belarria*... Ez ditugu izen berriak asmatzen. Bada, *zakila* da, *bulba* *bulba* da eta *klitoria* *klitoria* da, eta hor dago, ikusten da. Gorputz zati bakoitzak bere izena du, eta bere erabilera.

- Ugalketa prozesua, txikitatik, filtrorik gabe. Ez gara erleak, ez gara txakurrak. Gizakiak gara, eta gizakien adibideak jar ditzakegu. Badaude haurrentzako ipuin eta liburu ilustratuak, eta erabil ditzakegu. *Zakila* eta *bagina* hitzak erabil ditzakegu. Eta esplikatuz diezaiokegu gure semeari edo gure alabari nola egiten diren haurrak, deskribapen zehatz bat eginez, berak horrela galdetzen badigu. Haurrak nola jaiotzen diren jakitea ere oso interesgarria da. Ez gara behiak, gizakiak gara. Behi bat nola jaiotzen den ikus dezakete eta haur bat nola jaiotzen den ikus dezakete.
- Sexu aniztasuna. Tamalez, sexu aniztasuna oraindik ez da nahikorik lantzen gizartean, haur txikiekin. Nerabezaroan

nahikoa ohikoak dira tailerrak eta hitzaldiak eskoletan, baina gizakia sexuatu da jaiotzetik. Gure sexualitatea jaiotzetik ezagutzeko eta ulertzeko eskubidea dugu. Haurrari sexu aniztasuna dagoela erakutsi behar diogu euskarri ezberdinak erabiliz. Kontziente izan behar dugu hori ez dela ematen modu naturalean gure gizartean, eta askotan, guk bilatu behar ditugula erreferentziak: zenbait marrazki bizidunetan hasi dira aniztasun hori azalarazten; haurra pixka bat helduagoa bada, film batzuk ere badaude; eta, noski, liburuak eta ipuinak ere bai. Horiek haurraren eskura jartzea oso garrantzitsua da. Pertsona bakoitzak bere sexualitatea bizitzeko aukera anitz daukela jakin behar du. Gure hurrei hori lantzeko materiala eta informazioa eman behar diegu, errealitate ezberdinak ezagutarazteko.

- Begirada: noski, gure begirada hausnartzea eta lantzea da lehenengo pausoa. Komeni da gure tabuak haurrari ez transmititzea. ■■■

KOMENI DA GURE TABUAK HAURRARI EZ TRANSMITITZEA ETA HAUSNARTZEA GURE BEGIRADAZ

bertako -REKIN BAI!

igogailuak | ascensores

OTRARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari

GIPUZKOA

943 903 450

www.bertako.eus



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Margotu

Zeinen ederki hosto artean jolasean! Zoriona erabatekoa izan dadin, eman iezaiozu kolorea irudiari. Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.



Eskularru hauen artetik batek ez du parearik. Zein da?

Pareak bai!

ALdeak

Bi garo hauek elkarren ispilu direla ematen du baina badira diferentziak. 9 dira guztira.





Arrotza

Basoan naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzu?


HizKi-Zopa

Zopa honetan, berriz, basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.


Seiko Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto eroriek osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hori osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zubate eta area bakoitzeko.



Dadtoa



Bederatzi dado hauetatik bost irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak?

Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Soluzioak ikusteko:
www.plazanbazan.eus/

Mila Bakedano

ARGAZKIA: ARNAITZ RUBIO APREA

Donostian jaio nintzen 1964an. Batxilergora arteko ikasketak ditut. Gure aitak Telefonican egiten zuen lan karrera hasi nuenean, eta seme-alabei zuzendutako oposaketa berezi bat atera zuten enpresan sartzeko. Izena eman zidan ezer esan gabe. Telefonican sartu nintzen, eta harrezkero, bertan egin dut lan.

Bost urte dira ez dudala lanik egiten. Izan ere, eskaintza bat eduki genuen, etxean egotearen truke soldata bat jasotzeko. Aldi baterako lan kontratuak amaitu ziren, eta banakako etete planak jarri zituzten. Niri 53 urterekin eskaini zidaten; soldata murriztuta, noski, eta baldintza batzuekin. Baina soldata bat daukat, lan egingo banu bezala kotizatzen dut, eta hala jarraituko dut erretiroa hartu arte.

Nire gauzetarako bizi naiz orain. Kontua da nik zaletasun asko dauzkadala, eta libre nagoenez, aukera daukat horiei denbora eskaintzeko. Kontuak kontu... Ez daukat denborarik. Eskulanak eta asko gustatzen zaizkit: puntua, kakorratza, jostea... Astindu dantza taldean ere ordu asko sartzen ditut. Lantalde bat gara, baina beste denek lan egiten dute, eta nik hartzen ditut ardura pisuzkoak, logikoki. Gustura egiten dut; bestela, ez nukeen egingo. Sasoian mantentzeaz gain, dantzak adin desberdinetako jendearekin harremana egitea eman dit. Oso aberatsa izan da hori. Bestela, ez nukeen jende askorekin harremanik izango.

Aurten 11 urte dira Astindu sortu zela. Orain garairik onenean gaude; hilabetero antolatzen dugu zerbait. Herriko festetarako ekintzak ere bai, Karnabaletarako, adibidez. Denean gaude sartuta. Eta erruaren zati bat nik daukat, ardura nik hartzen dudalako, eta ezetzik esaten ez dakidalako. Edozein proposamenekin aurrera egiten dugu.

Ikuskizun handiak prestatu ditugu. Lan handia dute, baina merezi dute. Asetasun ikaragarria ematen du. Poztasun handia ematen du frontoia beteta edukitzea herriko jendearekin, eta jendearengandik zorian mezuak jasotzeak. Bi urtean behin egiten ditugu halakoak; oraintxe ari gara datorren urtean zer egin pentsatzen. Ideia bat badaukagu, baina erabakirik ez, teknikoki egin daitekeen-eta aztertzen ari gara eta. 100 bat lagun elkartu ginen aurreko emanaldietan, eta nik uste dut ez dagoela hainbeste zumaia elkartzeko dituen ekintzarik herri mailan. Dantzara animatuko nituzke herritarrek, dudarik gabe. Tailerrak horretarako dira: zerotik hasteko eta dantza mota desberdinak probatzeko.

Betidanik izan dut dantzarako zaletasuna. Euskal dantzetan ibili nintzen txikitan, eta gero, aerobicean eta beste dantza estilo batzuetan ere bai. Pentsa, Donostian bizi nintzenean, Zumaiara etortzen nintzen dantza klaseak jasotzera.

1989an etorri nintzen hona bizitzera, baina lotura betitik izan dut herriarekin, ama zumaiarra zelako. Oporretara etortzen ginen; beraneanteak izan gara. Beti gustatu izan zait, eta nire ametsa zen hemen bizitzea. Eta lortu nuen. Zumaiarra sentitzen naiz guztiz. ■■■



ekin
elektrotiketa, s.l.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiia tel. 943-14 30 97
ekin@ekinl.com www.eekinl.com

**Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet**

mara **MÁSMÓV.L**

**ERNIO
TABERNA**

V. Arrate, 3 Tel. 943-86 00 45

Ent2
Informatika

**ORDENAGAILUAK · MUGIKORRAK ·
KONPONKETAK**

Behoko plaza 943-14 33 95

Garoa

Carlos Cintero - Ainhoa Olaizola
tel.: 943-86 21 81
Txomin Agirre, s/n
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

GLENCOE
INGELES AKADEMIA

TALDE MURRIZTUAK

Zumbilo kalea, 12 beheha
tel. 670 39 17 77
matrikulazioa dohainik!

Ikastegi homologatua

Golden Gate
institute
hizkuntz eskola

Erribera kalea 1 bis, beheha
tel./faxa 943-86 50 20
info@goldengateinstitute.com

Gure-Txokoa
taberna

Upela plaza, 4
20750 Zumaiia
Tel.: 943-86 09 70

Harvest
English School

...eta udaran Ingalaterrara ingelesa praktikatzera
www.academiaharvest.com

San Jose, 11 bis tel. 943-14 33 34

ilarfi

Alai auzategia, 2
Tel. 943-24 50 20

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea 16. Tel. 943-86 15 23

Iriondo optika
Optometria - audio zentroa

Kantauri plaza, 8. Zumaiia. tel.: 943-86 04 86
Nagusia, 53. Azkoitia. tel.: 943-85 19 84

IRUDI OTS

Ikuskizun orotarako solnu
eta argiztapen alokairua
Hots eta irudigintza aretoa
tel. 943-63 16 32 irudiots@irudiots.com

IRUITZ
ileapaindegia

Analisi kapilarrak eta
tratamendu
personalizatuak

San Telmo 12 943-86 07 60

**ORRAZTEGI
ZUMAI**

943-86 20 83

KABI
Patxita Elvezarreta, 15
943-11 74 27

TABERNA

JUARISTI
jatetxea

Arrainak eta haragiak aukeran
Eguneko menua
Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 tel. 943-05 05 77

Kaithermik S.L.

Arotzeria metalikoa
Aluminiozko leihoak ZTHrekin,
PVCzkoak eta mistoak

Santiago auzoa, 20 Tel./faxa: 943-86 03 20



Bost hamarkada gorabeheran

50 urte, mende erdi bat, eta mila eta bat igoera, beste hainbat jaitziera. Historia oparoa du Indamendi Mendi Bazkunak, baita etorkizunerako asmoak ere. Lehenbizi, urteurrena ospatzea. Horren guztiaren berri eman dute erreportaje honetan.

Testua: **Jabi Gonzalez Toston**. Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Indamendi**.



Ana Egaña eta Andres Esnal bildutako argazki zaharrei begira.

Datorren otsailean beteko du mende erdia Indamendi Mendi Bazkunak.

Ordurako finkatu du, behintzat, urrezko ezteietarako data gaur egungo Zuzendaritza Batzordeak. Bidasoa kalean duten bulegoa arakatuta topatu duten kutsu ofizialeko agiri zaharrena hautatu dute elkartearen adina zehazteko, zeren jakin badakite sorrera aurretiazkoa dela. Horren erakusle, kaxoi artean aurkitutako lehen bazkide txartelak, 1973ko urtarrilekoak, eta, batez ere, *Zeruko Argia* aldizkariaren 1972ko azaroaren 5eko zenbaki batean jasotako aipamena: *Beste elkarte bat ba omen dugu herrian. (...)* 'Indamendi' izenez bataiatu dute. Beren asmo askoren artean oraingoz nagusia hau omen dute: *neska-mutikoekin igandeetan mendi ibilerak*

eratzea. Ordutik igaro diren 50 urteetan aldatu ez den xedea da.

Nolanahi ere, denbora horretan izan da aldaketarik, noski. Zuzendaritza Batzordean, halaberharrez. Lehenengoan ez zen emakumerik eta orain erdia dira, tartean, lehendakaria eta lehendakariordea: Lore Esnal eta Ines Aseginolaza. Gainerako zuzendaritza postuak Ana Egañak, Andres Esnalek, Jose Ignacio Urbietak eta Jose Luis Etxabek betetzen dituzte.

Lehen Zuzendaritza Batzordea osatu zuten gazteen izenak, berriz, Indamendiren urtebetetzea finkatzeko baliatu duten familia liburuan daude jasota. Honela dio liburuxkaren lehen orriak: *1973ko otsailaren 9an, arratsaldeko 8:30ean, zuzendaritza batzordeko kide hauek bildu dira ohiko batzarrean: Jokin Zubeldia, Agustin Esnal, Simon Idigoras, Jose Miguel Aramendi, Antxon Aldalur, Jesus Aizpurua, Josu Aguirre, Luis Mancisidor, Fermin Azcue, Iñaki Lazcano, Fernando Rubio eta Joseba Zubiaurre.*

Giza garapenak ekarri ditu elkartean eragina izan duten aldaketa gehiago ere. Ildo horretatik, mugikortasunean eman diren aurrerapausoak nabarmendu ditu Lore Esnalek; izan ere, bi asteburutik behin egiten dituzten irteerak erosoagoak zaizkie orain. Lehenengo ibilaldiak antolatzen hasi zirenean Anboto igotzeak, adibidez, egun osoa etxetik kanpo pasatu behar izatea ekartzen zien.



Egun, ordea, eguerdirako Zumaiara bueltan izan daitezke. Azken batean, errepideak hobeak dira, eta aukera zabalagoa dago.

Horrez gain, duela 50 urte izapide gutxiago bete behar zuten. Indamendi jaio zenean mendizale federaziorik ez zegoela gogoratu du Andres Esnal diruzainak: "Klubak sortu ziren aurrena, eta ondoren etorri zen federazioa". Edonola ere, horrek ez du elkartearen jarduera oztopatu mendi ibilaldiak antolatzeko. Jose Ignacio Urbietak idazkariak azaldu duenez, eurek dei irekiak egiten dituzte. Hau da, parte hartu nahi duen orok eman dezake izena; baita bazkide ez direnek ere. Federatuta egotea ere ez da beharrezkoa, ezta aseguria egitea ere. Hori bai, elkartekoek beti gomendatzen dute federatzea. Halaber, Urbietak argi dio: "Guk antolatutako ibilaldiek ez dute inor aseguratzeko, norbera nahiko heldua bada bere buruaz arduratzeko. Autobusa kontratatzen dugu, eta izena eman eta gurekin animatzen denari bidea erakusten diegu".

Alde horretatik, Indamendik eskaintzen duen berezitasun nagusietako bat da ibilbideetako asko zeharkaldiak direla. Hau da, puntu batean hasi eta beste batean amaitzen dituzte txangoak. Autobusean mugitzearen abantailetakoa bat da hori, zeren eta mendira autoan gerturatuz gero, nahitaez itzuli behar baita abiapuntura.

Euskal Herria Aldenik Alde da urteurreneko ekimen nagusia.



Mendi irteeren egutegia aurrerapen handiarekin prestatzen dute, datorren urte osokoa itxi dute, esaterako, eta goiz bakarrean egitekoak, egun osokoak edota bizpahiru egunekoak izan daitezke. Egun bakarrekoak direnak Euskal Herriko mendateetara egiten dituzte eta Aste Santua, San Pedro jaiak eta zubiak urrunago joateko aprobeztatzen dituzte: "Pirinioetan askotan izan gara, Leonen, Sorian, Alacanten, Nevacerradan Madrilen, Sierra de Aitanan Valentzian, Europako mendiak Asturiasen...", zerrendatu dute batzarkideek elkarrekin. Penintsulatik at ez dute bidaiatu Indamendiren izenean, nahiz eta elkarteko kideren batzuek egin duten halako abenturaren bat: Atlaseko mendikatean –Afrika iparraldean– izan ziren batzuk, eta zuzendaritza taldeko Ines Aseginolaza eta Jose Luis Etxabe Nepalen izan berri dira.

Azpimarratu beharra dago, era berean, urte luze hauetan Indamendik antolatutako

txango bakar batean ere ez dela ezer larririk gertatu. Nolanahi ere, izan da batzarkideen artean hausnarketa eragin duen gertaerarik. Ana Egañak esan du, adibidez, asko hunkitu zuela Bilboko talde bati gertatutakoak: "Eguraldi iragarpena lagun ez bazuten ere, aurreikusita zuten ibilbidea egitea erabaki zuten, eta elurrak harrapatu zituen. Taldekideetako bat hil egin zen, eta beste bat helikopteroz erreskatatu behar izan zuten. Orduan jabetu nintzen zenbateko ardura dugun ibilaldien antolatzaileok".

Egañak aipatutakoaren gisako zorigaiztoko ezbeharrak ekiditeko maiz moldatu dituzte planak elkartean. Txangoa bertan behera utzi gabe, betiere. "Ez dugu programatutako irteera atzeratzeko ohiturarik, alertaren bat ezarri dutenean soilik bota dugu atzera. Dena den, bidea arriskutsu badago, aurreikusitako ibilbidea aldatzeko arazorik ere ez dugu izaten. Tontorrera igo beharrean, beste bide bat hartu, eta kito", azaldu du Egañak berak. Eta Lore Esnalek zera gaineratu du: "Mendira joateko euria sekula ez da oztopo izan. Askotan ibili gara euripean, aski da arropa aproposa eramatea".

Eskola kirola

Arestian esan bezala, txikien artean mendizaletasuna bultzatzea da Indamendiren egiteko nagusietako bat. Helburu hori betetzeko herriko eskolekin elkarlanean jarduten dute eskola kirola egitasmoaren barruan. Gauzak horrela, txango ugari egiten dituzte urtero; baina, helduekin ez bezala, haurrekin mendi irteerak antolatzea lehen baino nekezagoa zaie. "Adin txikikoak autobusera igotzeko gurasoek baimena sinatzea nahitaezkoa da, eta guraso horiek gero eta xehetasun gehiago eskatzen dituzte, gainera. Seme-alabak etxera bueltan noiz izango diren zehazki jakin nahi dute, zer ibilbide egingo duten zehatz-mehatz...", kontatu du Egañak.

Hori gutxi balitz, arduradunak adinez nagusia izan behar du, eta mugatuta du zaintzapean hartu dezakeen haur kopurua. Horri dagokionez, Andres Esnalek gogoratzen du haurrak zirenean haren anaia zaharra begirale bakar hartuta askotan joan izan zirela mendira:

"Anaiak 19 urte inguru izango zituen soilik, eta bera eta beste bizpahiru lagun baino ez ziren etortzen gurekin 60 lagun haur izanik". Are gehiago esan du Ana Egañak: "Ibilaldi neurtura bakarrik joaten ginen, heldurik gabe. Egia da antolatuta zegoela eta bidea ondo markatuta, baina gaur egun ezinezkoa da hori. Nahitaez lagundu behar zaitu heldu batek".

Ildo beretik, elkarteko lehendakariari euren haurtzaroko beste oroitzapen haxe datorkio gogora: "Ezkaraira egin genuen irteera batean, mela-mela eginda bukatu genuen, eta ez genuen aldatzeko arroparik. Hotzez ginenez, bertako jendeak arropa lehorrak utzi zizkigun etxetz eskean aritu ondoren. Orain, pentsaezina da hala jardutea".

Pandemia

50 urte hauetan gorabehera ugari izan ditu elkarteak, baina guztietan gogorrena COVID-19ak eragindakoa izan da Lore Esnalen hitzetan; izan ere, urtean antolatutako 25 mendi irteera inguru egitetik etxean geratu behar izatera igaro ziren egun batetik bestera. Gainera, neurriak pixkanaka kentzen hasi zirenean, horiek etengabe



**ORAIN 50 URTE
INDAMENDI SORTU
ZUTENEAN MENDI
FEDERAZIORIK EZ
ZEGOEN**

**PANDEMIAZ GEROZTIK
EUSKAL HERRI OSOAN
EGIN DU GORA
FEDERATU KOPURUAK,
BAITA ZUMAIAN ERE**

MAIAUR
ZUMAIA

Julio Beobide, 2 • Tel. 943 862 269  

CROISSANTERIA

 pizzak
hanburgesak
bokatak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943-86 22 46

maximus **PENCIL**
estudio decoración

Julio Beobide, 2 - ZUMAIA
699 49 52 56
maximuspencil@gmail.com
Deitu edozertarako, aurretiko hitzorduekin egiten dut lan


MENDI - ONDO S.L.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943-86 00 74 - 943-86 15 69
mendi-ondo@mendi-ondo.com www.mendi-ondo.com

 **NOIA S.L.**
TAILERRAK ETA
KARROZERIAK

Elengabeko garabi zerbitzua 636 86 78 12 (Zumaia)
609 83 44 38 (Itziar-Deba)

Hego kalea, B3 (Estazioan) Itziar industriagunea, C
20750 - Zumaia 20820 - Itziar-Deba
Tel.: 943-86 13 63 Tel.: 943-60 62 91
zumaia@carroceriasnoia.com noia@carroceriasnoia.com
www.carroceriasnoia.com

 **LIDEN**
eraikuntzak eta arkitektura

bizkaia kalea 13, zarautz
678 875 652/ 943 905 983
lur@olidenreformas.com
www.olidenreformas.com

 **OSA**
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 • tel. 943-86 14 12 • 686 36 41 49

 **OSTOLAZA**
OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Joxe Mari Korta Industriegunea, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 66 • Fax 943 86 13 45
www.ostolaza.com • e-mail: osto@ostolaza.com

Ostolaza
altzariak

Tel/Fax: 943-86 13 25
Julio Beobide Ibiltokia, 1 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
mueblesostolaza@euskalnet.net / www.mueblesostolaza.com

 **SOLOZABAL**
autoeskolak

Etxezarreta, 19 • 943-861416
zumaia@solozabalautoeskolak.com

Bertako elikagaiak - Osteopatia - Psikologia zerbitzuak
Psikomotritizitatea - Naturopatia
www.sura.eus

Sura
ZAINZA
OINARRIAN

Patxita Etxezarreta 17 • 688 71 85 38

Talaya
taberna • jatetxea



Santiago auzoa, 4 Tel. 943-14 33 70

 **Tapaia**
taberna

Erribera kalea
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
tel. 943-86 19 73

TTAKUN TABERNA



Izustari, 3
tel. 943-86 52 89

TXIMISTA
garagardotegia


Ogitortekook
Plater konbinatuak
Txerri-ukondak (kodilloak)
Saltxitrak, oilaskoak...
Garagardoak aukeran

Ondarroz plaza, 4 beheko -Tel. 943 573 905

 **UKENDU**
PARABOTIKA
BELARDENDA
Aitziber Etxeberria Garro
Farmazialaria

Kantauri plaza, 2 943-86 09 92 www.ukendu.com

UZKUDUN
taberna



Eusebio Gurrutxaga plaza, 10 - 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel.: 943-11 63 97

aldatzen zituzten. Gauzak horrela, gerta zitekeen kutsatzeen bilakaeraren ondorioz herriko mugak atzera berriro itxi behar izatea egun batetik bestera eta prestatutako txangorik gabe geratzea. Dena den, Indamendik azken unera arte eusten zien hitzorduei horiek bertan behera utzi aurretik. Azken batean, mendia arnaspunea zen askorentzat.

Bazkide kopuruan ere antzeman dute hori, nabarmen egin baitu gora. Inoizko gehien dituzte orain: 318. Horren arrazoi nagusia da mendizale federazioan izena eman ahal izateko elkarteko bazkide izan beharra dagoela, klubek kudeatzen baitituzte federatzeko izapideak. Pandemiak geroztik Euskal Herri osoan egin du gora federatu kopuruak, eta Zumaia ez da salbuespena. Gainera, Urbietak azaldu duenez, erabateko normaltasunetik gero eta gertuago bagaude ere, joera hori ez da aldatu. Alegia, federatu kopurua gora egiten ari da oraindik ere.

Edonola ere, elkartearekin lotura zuzena duten bazkideak nabarmen gutxiago dira: 30 inguru "leialenak" eta bi asteburutik behin jarritako hitzordura hutsik egiten ez dutenak; beste 30 noizbehinka animatzen direnak; eta gainerakoek apenas duten harremanik. Gazteen falta nabari dute, eta erakarri nahiko lituzkete elkarteak jarraipena izan dezan.

Urtebete iraungo duten ospakizunak

Urtebetetze data ofiziala otsailean izango duen arren, Indamendik hasiak ditu ospakizunak. Maiatzaren 15ean hasi zituen Indamendi Egunarekin, eta datorren urtean amaituko ditu Indamendi Egunarekin, berriro ere. Bitarte horretan, ekintza ugari izango dira, hala nola, hitzaldiak, lehiaketak eta erakusketak.

Ekintza nagusia, dena den, *Euskal Herria Aldenik Alde* zeharkaldia da, zeinarekin Euskal Herria ekialdetik mendebaldera gurutzatuko duten 24 etapatan. Ibilbidea hasi dute dagoeneko, eta ohitura propioei jarraituz, bi astetik behin ari dira. Hala, Euskal Herriko tontor ezagun gehienak egingo dituzte: Tologorri, Gorbea, Anboto, Udalatx, Aizkorri, Irumugarrieta, Ireber, Saioa, Ori, Otsogorrigaña eta Hiru Erregeen Mahaia, besteak beste. ■



Mendizaleen fitxa zaharrak gordetzen dituzte elkartearen lokalean.



ASESORIA ARIN

- Abokatua
- Kontabilitateak, gestoria, zergak eta laborala
- Inmobiliaria gestioa
- Komunitate administrazioa

Gesalaga kalea, 22 behea ▪ ZESTOA
Tel./Fax-a: 943-89 70 99 ▪ asesoriarin@asesoriarin.com

Hizketa garbia

TESTUA: IMANOL AZKUE IBARBIA

@ImanolAzkue

ILUSTRAZIOAK: DANIEL CARBALLO

OSTOLAZA

Duela bi mende, 1800 aldera, Zumaiaiko portua eta errioaren ingurua oso desberdina zen, edo ez, behintzat, gaur ikusten duguna bezalakoa: ez zegoen barrarik, ezta *pasarela*-rik ere Santiago aldean; ez zegoen Paolalderik, ezta Moilaberririk ere; Arbustainen uhartetxo bat zegoen eta Amaiaiko plaza urak hartzen zuen; gaur egun, Moila ikusten dugu harriz sendotutako espazio lau eta zabal bezala, baina azpiegitura horiek guztiak nahikoa berriak dira, XIX. mendearen amaierakoak eta XX. mendearen hasierakoak, portua interes orokorreko izendatu ondoren eraikiak. Beraz, 1800ean, imajina ditzagun itsasontziak eta txalupak moilan, baina horiek lotzeko lekuak ez ziren orain bezalakakoak.

1774an gaude. Gertrudis eta Jesusa Mugertegi ahizpek denda daukate Zumaiaiko herrigunean. Donostian zaku bat gatz erosi dute, eta Zumaiaarako itsasontzi batean sartu dute ekartzeko, baina, itxura denez, inork ez dio ezer esan ontziburuari, Agustín Albizuri. Bi ahizpak moilara jaitsi dira elkarrekin, Albizuren

txalupara, gatzaren bila. Hurbildu, eta galdetu diete itsasontziko marinelei non den gatz; haiek erantzun ez daukatela gatzaren berririk; bi ahizpak begira eta begira, hara non ikusten duten ordurako deskargatuta daukatela zakua, eta, gainera, zikinduta dagoela balea koipearekin. Haserre, bi ahizpak irainka hasi dira eta eztabaida bizia izan dute marinelekin, zeinen ardura den. Marinelak, orde, ez dira isilik egotekoak, eta hitzetik hortzera erantzun diete. Azkenean, ahizpek salaketa jarri eta epaiketan amaituko dute. Joaquin Urbietta da marineletako bat, eta hara zer esan omen zien ontziko lagunei, lekuko baten arabera:

"Ofendido del alboroto sin fundamento de las acusadas

"1881EAN, JUANA GALDONA ALARGUNAK EPAIKETARA ERAMAN ZITUEN BI KOINATA, IRAINAK ZIRELA ETA"

prorrumpió en la expresion de decir asus compañeros llebado deinprudencia bamonos deaqui para que **estas lotzagabe desbergunzatuac** nonos obliguen a hacer un desatino que sin duda como tienen de costumbre han benido aello"¹.

Gaztelaniazko deklarazioan euskarazko hitzak daude jasota, irainak hitzez hitz, baina ez dakigu seguru nola esan zuen gainerakoa, euskaraz edo gaztelaniaz. Hona hemen zer deklaratu zuen beste lekuko batek, Joaquin Galdonak:


"Sobre cuio asunto empezaron a disputar con el dicho Agustin de Albizu; que entonces dijo Joaquin de Urbietta vezino de esta dicha villa, y uno de los de la tripulacion de dicha chalupa **lo que sigue en Bascuence, goacen emendic lotsagave desvergonzatuoc eraguin ez deguiguen bear ez dan gauzarembat**, a que respondieron ellas que mas desvergonzado era el"².

Garbi ikusten da Joaquinek euskaraz esan zituela esatekoak, eta idazkariak itzuli egin zituela haren hitzak. Beste lekuko batzuen hitzetan, gaztelania hutsean daude jasota esandakoak, adibidez, honela:

"Objetando amis partes que no eran otra cosa sino desvergonzadas y de verguenza perdida".³

Epaiketako paperetan, badirudi gaztelaniaz hitz egiten dutela lekukoeak, eskribauak hala idatzi zituelako, baina ba al


da dudarik Joakin Urbieta, Javiera Mugertegi eta Gertrudis Mugertegi euskaraz ari zirela elkarri irainka?



Urte batzuk geroago, 1802an, Zarauzko lantxa batek antxoak eta sardinak ekarri zituen Zumaiako portura, eta askok erosi egin zituzten bisigutarako, karnatarako. Arraina txalupatik lehorreratzten eta etxerako karreatzen ari zirela, etorri da Manuela Mugerza eta esan du otarre bat berea dela; heldu dio otarreari, eramateko asmotan, baina Maria Concepcion Odriozolak geldiarazi egin du eta esan dio ezetz, uzteko zegoen lekuan; hasi dira eztabaidan eta otarreari tiraka, hau nirea da eta ez da, eta erori

da Manuela uretara. Minduta, Manuelaren senarrak, Jose Vicente Zulaikak, salaketa jarri zuen Maria Concepcionen aurka, irainengatik. Epaiketan, lekukoek behin eta berriz kontatuko dute ikusitakoa; batek dio deklarazioan "que estava en punto de darla un bofetón en la cara"⁴, eta beste batenean, hauxe ageri da: "Y entre otras cosas la dijo dicha acusada ala referida Manuela, que estava en punto de sacudirla un **zaplazo** en la cara y dicho esto la reempujo a la dicha Manuela muger del

GAZTELANIAZKO DEKLARAZIOAN EUSKARAZKO HITZAK DAUDE JASOTA, IRAINAK HITZEZ HITZ



presente con dicha cesta que tenía a su lado, y la hizo meter en la Agua"⁵. Gaztelaniaz idatzita dago lekukoen deklarazioa, horiek ere gaztelaniaz ariko balira bezala, baina erraz imajina dezakegu Maria Concepcion, zaplaztekoa emango diola euskaraz esaten.

Moilatik ez gara urrutira joango, Zubiaurrera, San Telmo kalera baino ez, eta irain kontuekin jarraituko dugu. 1881ean, Juana Galdona alargunak epaiketara eraman zituen bi koinata (senarraren arrebak), irainak zirela eta: "Pide en su vista que se corrijan esas bocas desenfrenadas que han soltado la palabra de sangre vendida"⁶. Itxuraz, senarra hil ondoren, alargunak ez zien uzten koinatei umea ukitzen, eta horregatik sortu zen liskarra:

"La Juana Galdona afirmándose en la demanda dijo que el día nueve del actual a su paso por la calle de San Telmo no tan solo le habían proferido la palabra que espresa en la demanda sino que también María Francisca la dijo que era una pícara cochina desvergonzada. La demandante [sic.] María Francisca contestó que tan solo la dijo que era una desvergonzada y su hermana

Josefa Ignacia espuso: que es cierto le profirió o le dirigió a su cuñada la palabra **Odol-salsallia**. La demandante replicó que es cierto lo que expone. Las demandadas contrareplicaron insistiéndose también en lo manifestado. El padre de María Francisca y Josefa Antonia dijo, que la palabra que su hija la dirigió a la Juana de **Odol-salsallia** era debido porque a su nieto y sobrino de sus hijas no les permite acariciar como tampoco a él ni a su esposa, como abuelos. A esto la demandante dijo: que no es exacto que ella se haya opuesto nunca a que a su hijo lo acaricien y que sobre las palabras que le dirigió también la Maria Francisca ofrece testificar al efecto por medio de los testigos Ana Josefa Egaña y Antonio Aizpurua de esta vecindad, y creyéndola pertinente quedó admitida la prueba ofrecida"⁷.

Lekukoek ere baieztatu zituzten irainak: "Que en efecto le consta por haber visto que la Josefa Ignacia dirijiéndose a la Galdona la dijo **odol-salsallia**, y que la María Francisca también a la Galdona le dijo: **odol-salsallia**, pícara, cochina, **veltzá**"⁸ eta "que tanto la María Francisca como Josefa Ignacia Egaña la

dijeron a la Juana Galdona **odol-salsallia** y la María Francisca también la dijo **siquiñá**"⁹. Epailearen sententzian hau ageri da: "(...) Considerando que las palabras **Odol-salsallia y siquiña en los Vascongados se consideran injuriosos**"¹⁰. Itxuraz, eskribauak ez zuen aurkitu *odol-saltzaile* hitzaren gaztelaniazko ordain egokirik (hasieran erabilitako *sangre vendida*-rekin gustura geratu ez, nonbait), eta bere horretan jaso zuen, baita *beltza* eta *zikina* ere.

Horra hor *biraorikan ez duen hizketa garbia*, Moila inguruetan... ■■■

¹ Gipuzkoako Artxibo Orokorra, COCRI425,2 (5R-5V), 1774.

² GAO, COCRI425,2 (11R-11V), 1774.

³ GAO, COCRI425,2 (9R), 1774.

⁴ GAO, COCRI501, 8 (12), 1802/1803.

⁵ GAO, COCRI501, 8 (13), 1802/1803.

⁶ Zumaiaiko Udal Artxiboa 227, 1881-06-03.

⁷ ZUA 227, 1881-06-25.

⁸ Ibidem.

⁹ Ibidem.

¹⁰ ZUA 227, 1881-07-02.



08



Ikus-entzunezkoak

09



Argitalpen
digital
multimedia

01

Publizitatea



Papera

07



Identitatea
eta marka irudia

06



Diseinu
lanak

04



Edukien
sorkuntza

03



Komunikazio
kanpainak

05



Webguneak eta
marketin
digitala

02



Estrategia eta
planifikazioa



Telebista

MARKETIN eta KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK

B

K

erlo



KH

nri

ZH

AGENDA

DEIALDIAK

AZAROAK 18-ABENDUAK 2

Euskaraldia.

AZAROA

4 OSTIRALA

Antzerkia: *Mundos para los ojos*, Oscar Terol.

Aita Marin, 20:00etan.

4-7 ASTEBURUA AITA MARI

Zinema: *La consagración de la primavera*.
19:00etan.

Haur zinema: *Hopeer: Oilaskoerbia*.
Azaroaren 6an, igandean, 16:30ean.

5 LARUNBATA

Larraina Eguna.
Alondegian, 11:00etan.

6 IGANDEA

Haur antzerkia: Benetan Be-ren *Batetik bestera*.
Aita Marin, 12:00etan.

8 ASTEARTEA

Solasaldia: Eider Rodriguezen *Eraikuntzarako materiala* liburuaz.
Irakurri Matte taldean.
Alondegiko Moila gelan, 18:00etan.

Hitzaldia: *Hezkidetza saioa* (Edurne Daiteke).
Oxford aretoan, 18:00etan.

11 OSTIRALA

Kultur ekitaldia: Euskaraldia.
Victoriano Arraten (eguraldi txarra bada, Herri Eskolako frontoian),
18:00etan.

11-14 ASTEBURUA AITA MARI

Zinema: *Amsterdam*. 19:00etan.

Haur zinema: *Loilo mi amigo el cocodrilo*.
Azaroaren 13an, igandean,
16:30ean.

Antzerkia: Udalbiltza, *Trapu zikinak*.
Aita Marin, 20:00etan.

15 ASTEARTEA

Hitzaldia: *Limiteak eta maitasuna*.
0-2 urte (Haurreskolak-Ramon Mauduit).
Oxford aretoan, 18:00etan.

17 OSTEGUNA

Zine forum: *Fire of love*.
Aita Marin, 19:00etan.

Ekitaldia: Euskaraldia.
Kofradian, 19:00etan.

18 OSTIRALA

Kontzertua: Arineketan.
Aita Marin, 20:00etan.

19 LARUNBATA

Bertso bazkaria: Euskaraldia.
Eguerdi.

Kontzertua: San Pedro abesbatza, *In aeternum*.
Parrokian, 20:00etan.

18-21 ASTEBURUA AITA MARI

Zinema: *As bestas*.
19:00etan.

Haur zinema: *Nire kirkua*.
Azaroaren 20an, igandean,
16:30ean.

20 IGANDEA

Meza nagusia abestuta: Beheko Plaza abesbatza.
Parrokian, 11:00etan.

21 ASTELEHENA

Ikuskizuna: Zumaiako Musika eta Dantza eskola, Euskaraldian.
Zumaiena aretoan, 19:00etan.

22 ASTEARTEA

Ipuin kontaketa: Maite Franco, *Arrosa eta leuna* (+5 urte).
Haur liburutegian, 17:30ean.

24 OSTEGUNA

Solasaldia: Euskaraldia, Jon Maiarekin.
Aita Marin, 19:00etan.



Batzuen iluna, besteen argia



ITZALEN DISTIRA

Egilea: Arrate Egaña

Argitaratzailea: Erein

Argitaratze urtea: 2022

Orrialdeak: 148

Generoa: narrazioa (ipuin bilduma)



TESTUA: ANTON PEÑALBA

Itzalen distira Arrate Egañak idatzitako ipuin bilduma dugu. Idazle emankorra dugu errenteriarra; izan ere, hogeita hamar inguru liburu argitaratu ditu, bai helduentzat, bai gazteentzat. Literatur sariak ere irabazi ditu, besteak beste, Donostia Hiria (2012) eta Mikel Zarate (2015).

Adin, nortasun eta bizitza molde askotako pertsonaiak sortu ditu idazleak *Itzalen distira* bildumarako: oroitzapen gogaikarri bat atzean uzteko beharra duen preso ohia, aitaren hileta elizkizuna fede krisi betean dagoen apaizaren esku utzi nahi duen andre atea, leihotik ikusten duen neskata batenganako obsesioak jotako atsoa, ehiztariek utzitako hondakinak garbitzeko ardura hartu duen neska pare, iktus bat izan ostean azkenekoa izan litekeen bidaia aspergarria abiatu duen emakumea, irakasle ohi batekin topo egitean nerabezaroko maitasun istorio bat berpizten zaion gaztea, fikzio adikzioak pasadizo ero batean murgildu duen emakumea eta ezusteko

albiste ilun batek argira daramatzen hiru andre.

Emakumeek presentzia handia dute kontakizunetan. Idazleak egoera nahiko korapilatsuetan jarriko ditu protagonistak, eta harrapatuta dauzkaten egoera tragikomikoetatik abiatuta, aurre egin beharko diete obsesioari, ihes egiten dien denborari, heriotzari edota sakrifizioari bere gogoetekin eta ekintzekin.

Ipuinak independenteak badira ere, kontakizunotan badira zenbait elementu, kasik ezkutuan antzeman daitezkeenak: gizabanakoaren hustasuna zahartze prozesuan, porrot egiten duten familiaren egitura arkaiko zein modernoaren islak, ongizatearen gizartearen kontra jasandako kolpeak.

OBSESIOA, IHES EGITEN DUEN DENBORA, HERIOTZA, ETA, BATEZ ERE, SAKRIFIZIOA AGERI DIRA

"Batzuentzat itzala dena argia izan daiteke beste batzuentzat; triste da, batzuetan krudela ere bai, baina askotan horrela da. Pertsona oso ezberdinak gara, bizitzan oso puntu desberdinetan gaude, eta horrelako egoerak gertatzen dira. Nik zure itzaletik argia hartu ahal dut", dio idazleak elkarriketa batean.

Obsesioa, ihes egiten duen denbora, heriotza, eta, batez ere, sakrifizioa ageri dira, baina horietaz gain, zahartzarora eta horrekin lotura duen heriotzaren kezka ere presente daudela esan daiteke.

Egañaren narratzeko moldeak zuzena eta irakurterraza da. Ez dago hornikuntza formaletarako betarik; izan ere, existentziaren gazi-gozaok kontatzeko ez da apaingarri gehiegizko estilo beharrik. Istorioak kontatzea xede denean, egileak maisutasuna agertuko du zehatz, xume eta erritmo neurtuan kontatzeko.

Erraz eta atseginez irakur daitezkeen ipuinak dira, aldian, ironiak eragindako irri txikia sorrazaziko dituenak eta, beste batzuetan, ezinegona. ■



JARRI HEMEN ZURE IRAGARKIA



**BERTSOLARI
TXAPELKETA
NAGUSIA 2022**

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

**FINALAURREKOAK
2. ITZULIA**

AMURRIO

Azaroak 19, larunbata, 17:00
Bañueta Kiroldegia

BAIONA

Azaroak 26, larunbata, 17:00
Lauga

BILBO

Abenduak 3, larunbata, 17:00
Bizkaia Frontoia

FINALA

IRUÑEA

Abenduak 18, igandea, 11:00
Nafarroa Arena

Antolatzailea: | Laguntzailea:



erto



ESKATU DOAN ZURE ZUMAIA VISA TXARTELA

GERTU
ZUMAIA HERRIAREN GUSTALARI ELKARTEA



Visa txartel
batek dituen
abantaila
guztiekin

Berehalako
kontsumorako
kreditua
eskaintzen
dizu

Deskontuak,
sariak,
zozketak,
puntuak...

Doako
aseguruak
ditu

Ordaindu 3
hileko epean
interesik
gabe



Eta desagertzen badira, zer?



JUAN LUIS ROMATET

Dagoeneko aski jakina den bezala, formatu fisikoen aldekoa naiz. Liburuak, aldizkariak eta komikiak paperean irakurtzea dut gustuko; diskoak biniloan entzuten ditut –gutxiago CDan–; eta pelikulak DVDan ikusi izan ditut orain gutxira arte. Bildumazalea naiz, bai. Eta ez da formatu digitalak probatu ez ditudalako. Liburuak digitalean irakurtzeko tramankulu bat oparitu zidaten urtebetetze batean, baita denbora gutxira izorratu ere. Digitalean disko bat edo beste erosi izan dut, baina gutxira berriro fisikoa erosi nituen. Onartu behar dut, hala ere, telesailen eta filmeen kasua erabat bestelakoa dela: Netflix, Amazon Prime eta beste plataformek bete-betean harrapatu naute, eta pelikulak-eta streaming bidez ikusten ditut.

Plataforma gehienek kasuan –HBO izan ezik–, produktu horiek guztiak, film, dokumental edo telesail horiek, lainoan bakarrik daude ikusgai, sarean, Interneten; produktu fisiko bezala ez dituzte merkaturatu, ez DVDan, ezta Blurayean ere. Netflixen, Apple TVren edota Movistarren produkturen bat ikusi nahi baduzu, Internetarako sarbidea izan behar duzu bai ala bai; ezingo dituzu erosi film edo telesail horiek inongo dendetan, etxeko baldetan polit asko geratuko balira ere. Musikaren kasuan antzera gerta daiteke: talde edo bakarlari batek erabaki dezake bere azken kanta edo diskoa Interneten bakarrik publikatzea, eta dirurik ez gastatzea ia inork erosiko ez duen disko bat argitaratzen. A zer tristura.

Horrek badu arrisku bat, eta da orain bertan erraldoiak diren eta mundu osora zabaldutako diren plataforma horiek desagertzea, porrota izatea eta modu batera edo bestera kontsumitu nahi ditugun produktu horiek guztiak ez egotea etorkizunean inoren eskura. Telesail edota film horiek formatu fisikoan argitaratuta egongo balira, oraindik izango genuke ikusteko aukera, baina ikus-entzunezkoen plataforma gehienek kasuan ez da hala gertatzen. Imajina dezakegu orain gutxi den ahotan egon den *Blonde* filma desager daitekeela egun batetik bestera? Edo Alfonso Cuaronen *Roma*? Eta *The Lord of the Rings: The Rings of Power* derrepentean eterrean galduko balitz? Tolkienen frikiek onartuko ote lukete hori? Ikus-entzunezkoekin gertatzen dena musikarekin berdin-berdin gerta daiteke: egun batetik bestera talde baten diskografia osoa *desager* daiteke.

Agian katastrofista samar ari naiz jartzen, baina aditu batzuek eman dute dagoeneko arrisku horren berri. Hala, horren jakitun direlako, edo, onar dezagun, *postureoagatik* sarritan, musikaren salmentak gora egin du berriro ere euskarri fisikoan. Behingoagatik modan ere ba ote nago? ■■■

**PLATAFORMA
GEHIENEN KASUAN,
PRODUKTU HORIEK
LAINOAN BAKARRIK
DAUDE IKUSGAI**



Idoia

ARDOTEGIA

Julio Beobide, 2
943-57 49 86

ferretería Galdona S.A.




burdindegia



Industriarako era guztietako
material, tresna, pieza, eta osagarriak.



JOSE MARI KORTA INDUSTRIGUNEA · Pab. A6.1, 2-5 mod.
Tel.: 943 86 11 17



KIROPRAKTIKA ZENTROA

Kepa Txapartegi

Aita Mari, 17 behea · Zumaia
943-02 04 77

info@orekakiropraktika.com · [@oreka.kiropraktika](https://www.instagram.com/oreka.kiropraktika)